

DISEINU GRAFIKOA. Eroslerik ezean, Thierry Arsaut orain arteko jabea izango da aurrerantzean ere programaren jabea

Heritz Gallastegi | BILBO

Inor ez zen lehiatu Thierry Arsautek jaso eta euskarri informatikoan erabiltzeko *Euskara* izena daramaten hamalau letra tipoak eskuratzeko atzo. Enkantearen berri eman zutenetik hainbat erakundek erakutsi zuten *Euskara* tipografiaren eskubideak erosteko interesa, baina inork ez zuen parte hartu atzo enkantean. «Hiru erakundek interes handia erakutsi dute. Bi pribatuak dira —bata hemengoa eta bestea estatubatuarra— eta hirugarrena, berriz, publikoa, Euskal Herrikoa», adierazi zuen Frank L' Arkadek, proiektu kulturalak ekoizten dituen Consonni enpresako ordezkariak.

Arratsaldeko sei eta erdietan zen hastekoa enkantea, Bilbon, eta puntuari hasi zen. Enkantean, *Euskara* letra tipoen erabilera eskubideak eta letren diseinurako erabili diren oinarriko programa informatibo guztiak zeuden salgai. Hasierako prezioa 65.000 eurokoa zen (11 milioi pezeta inguru). Ez zen eskaintzarik jaso. Antolatzaileak etsiturik zeuden, lehiaketan inork parte hartu ez zuelako. «Egoera honetara nola heldu garen arrazoitzea ez da erraza. Beharbada, orain arte era honetako enkanteak ez direlako egin izango da», esan zuen Consonniko ordezkariak.

Salgai jarraitzen du.

Azken aste hauetan eztabaida zorrotza sortu da Thierry Arsaut tipografoak ordenagailuan erabiltzeko diseinatu dituen hamalau euskal letren inguruan. Nork eskuratu beharko lituzke eskubideak? Zer gertatuko li-



Frank L' Arkadek, Herrioren Saldetako Batzordearen aitzoko enkantean.

Inor ez da lehiatu Bilbon 'Euskara' tipografiaren eskubideak eskuratzeko

Hasierako prezioa eskaintzen duen lehenbizikoak eskuratuko ditu

zateke eskubideak jabetza pribatu geratuko balira? Ez da Euskal Herriaren ondare kulturala? Horiek eta beste hainbat galderak zeresan handia eman dute. «Gure helburuetako bat lortu dugu behintzat. Izan ere, euskal tipografiaren inguruan eztabaida piztu da. Enkante honetan ez dugu dirurik irabaziko,

eta, behintzat, gizartearen arreta gureganatzea lortu dugü. Zerbait lortzeko esperantza daukagu», esan zuen L' Arkadek.

Enkantea bukatu zen unetik hasierako prezioa BEZaren %16 gehituta eskaintzen duen lehenengoak eskuratuko du ordenagailu programa. «Astele-

henetik aurrera Moyua aretoan egongo da programa. Erostea asmoa duen lehenarendako izango da Thierry Arsautek egindako programa».

Hala ere, ez da denbora luze salgai egongo. Enkantearen arduradunek epé bat jarriko dute programa eskuratzeko; eta denbora horretan inork erosiko ez balu, jabearen esku geratuko litzateke berriro ere. «Gutxienez, hilabete inguruko epea izango da ordenagailu programa eskuratzeko. Saltzen ez bada, bere jabearen, Arsauten eskuetara itzuliko da».

Seguruena ez da beste en-

EROSTEKO AUKERA

Hasierako prezioa BEZaren %16a gehituta ordaintzen duen aurrenekoak eskuratuko du programa

ERREPIKAPENA

Consonni etxeokoe esan zuten seguruenik ez dela beste enkanterik egingo, zituzten esperantzak ez direlako bete

kante bat egingo. Ilusio handiz egindako proiektua zen eta emaitza ez da hasiera batean espero zutenarekin bat etorri. «Azken erabakia hartu gabe daukagu arren, seguruenik ez da ostera ere enkatera aterako. Esparru anitzetako jendearendako enkante interesgarria izango zela uste genuen», esan zuen L' Arkadek.

Hamalau tipografia jarri ziren enkantean

Hamalau izan ziren enkantean salgai jarri ziren letra tipoak. Hasiera batean, hamabost letra tipo biltzen zituen *Euskara* programak. Haietako bat, ordea, Kai tipografia, Santos Bregaña & Mikel Enparantzak diseinatu-tako da, eta, beraz, ezin zitekeen lotean sartu. Kai tipografiaren diseinatzaileek Estatu Batuetako Garage Fonts enpresarekin sinatuta dituzte banaketa eta salmenta eskubideak. «Duela hilabete inguru ohartu ginen Kai letra tipoa Santos Bregaña eta Mikel Enparantzak diseinatu-tako zela. Berehala jarri ginen eurekin harremanetan eta Kai letra enkanteretik kanpo utzi genuen», adierazi zuen L' Arkadek.

Enkante berezia

EZOHIKO KONTU UGARI. Motibo asko zituen atzoko enkanteak berezitat jotzeko: saltzen zen produktua ikusgai ez izatea da horietako bat

H.G. | BILBO

Enkante berezia izan zen oso-atzokoa. Arrazoi askogatik, gainera. Lehenengo eta behin, ez zelako inor lehiatzeko prest agertu. Bestetik, lote bakarra jarri zelako enkantean eta, hirugarrenez, salgai zegoen produktua ez zegoelako ikusgai.

Normalean gauza bat baino gehiago jartzen dira salgai enkanteetan eta era guztietako jendeak hartzen du parte. Eta, bide batez, atzokoan gertatu zen bezala, enkantean jarritakoa inork erosi ezean, enkantea bertan behera ez uzteko. Gaine-

ra, askotan aurrez aurre izaten da enkantean jartzen dena, erosleak zer erosi behar duen jakin dezan.

Jarduteko, era ez da beti bera izaten. Batzuetan, atzo gertatu zen bezala —Arsautek horrela erabakita—, hasierako prezioa jartzen zaio loteari, eta ipinitako kantitatea da produktuaren gutxieneko prezioa. Beste batzuetan, aldiz, prezio bat jarri eta diru gehiago edo gutxiago eskain daiteke.

Era berean, edozein ezin daiteke enkatera joan lehiatzera. Enkantea hasi baino gutxienez sei ordu lehenago, antolatzaileak zeintzuek parte hartuko du-

ten jakinaren gainean egon behar dute.

Aretoan bertan lehiatu ez eze, telefonoz ere parte hartu ahal da. Aipatu sei orduak baino lehenago aurkeztuz gero, faxez, idatziz edo postaz era lehiatzeko aukera dago.

Lehia irabaziz gero, ordaintzea tokatzen den kantitatearen %25a ordaindu behar da enkantea irabazten den momentuan bertan.

Egia esan, ez dauka filmetan ikusten denaren antz handirik. Atzokoa ere berezia zela onartu behar. Hori bai: atzo entzuteko aukerarik izan ez arren, han zegoen mailua.

TIRAGARRI MERKEAK 0 943 300 777

Lazkoeko San Benito ikastolak ordezkapenak botezko behar ditu!

- Magisteritzaz ingelesez + EGA.
- Prentses filologian lizentziatuz + EGA edo ingelez filologian lizentziatuz + frantsesez + EGA.

Curriculumeak martxoaren 15erako Lazkoeko 61 postokutxera bidali.

33 x 33 mm MODULO (Edizio orokorra)

Eguna: 3.000
Astea (6 egun): 2.300
2 aste (12 egun): 2.100
Hilabetea (24 egun): 1.500

GIPIZKOAKO

EUSKARA IRAKASLE IZATEKO IKASTAROA DONOSTIAN

apirilaren 2tik ekainaren 14ra bitarteko astelehenez ostegunero 16:00etatik 18:30ak arte

Informazioa eta izen ematea: 943 32 71 72 telefono zenbakian

Matrikula epea: martxoaren 28a